



Allande Sokarros

IRATIKO OIHANA

Barrenetik edo sahietsetik gozatzerat

EHUN urtetik gorako pagoak patxadaz zabaltzen dira Iratiko oihanean. Hostoen eta kolore aldaketaren paradisua den lur honetan barneratzea, Euskal Herriko eremurik birjin eta basatienean murgiltzea dela esan daiteke. Udazkenean, basoa milaka tonu ezberdinez jantzi eta kolorez lehertzen da; neguan, berriz, elurrez estali.

Iratiko etxolak... Bagargietako oihan argiunean jarriak

Iparraldeko zatiaren gozatzeko aukeretatik bat da Bagargietako lepo aldetik oinez edo mendí bizikletaz abiatzea. Iratiko etxolak bezala ezagutua bada ere, Zuberoan Bagargiak deitzen diogu leku honi. Pagoa «bagoa» erraiten da gure eskualdean eta Bagargiak izenak, ziur asko, erran nahi du



Allande SOKARROS (Etxebarre, 1957), zuberotar mendizalea da. BERRIA egunkarian kazetari lanetan dihardu. Aurretik, EGUNKARIAN ere aritu zen. ARGIA astekarian eta JAKIN aldizkarian kolaborazioak egiten ditu. Zuberoako euskalkia sustatzeko helburua duen SÚ AZIA elkarteko kide da. Zuberoako Bortikariak mendí elkarteko presidentea ere bada.

pagoen (edo bagoen) artean argiune bat badagoela. Argiune –zubereraz «tipilüne»– horretan aisialdiarako leku bat eraikiarazi zuen, 1970eko hamarkadaren hasieran, Xiberoko Botingoa deitutako egiturak. Zubereraz «botin» adjektiboak «amankomunean» erran nahi du. Ezen, Xiberoko Botingoak kudeatzen baititu, 1838an eratu zutenetik, Zuberoan sortutako guztienak –teorian behintzat– diren artzaintzako larreak eta oihanak, guztira 14200 hektarea. Jabetza partikatuan diren artzaintzako larre eta basoak egotea ez da Zuberoaren berezitasun bat. Horrelako beste hiru badaude Ipar Euskal Herrian: Baigorri, Garazi eta Oztibarrekoak, bat Biarnoan: Ossau ibarrekoak, eta zazpi Bigorran (Pirinio Garaiak). Zuberoaren berezitasuna da, ordea, artzain-txabolak eta inguruan duten lur eremu txiki bat artzain partzuarren jabetza partikatuak direla. Hau, baina, gerorago zehaztuko dugu.

Kolektibitate publiko moduan eratu den Xiberoko Botingoak bakarrik du oraindik Zuberoa historikoa aintzat hartzen eta ia osotasunean islatzen. Ia, zeren eta, 43 udalerritako ordezkariak baldin badaude, Eskiula herria ez baita Xiberoko Botingoaren barne.

Artzaintza mantentzeko eta biziberritzeko aitzakian, Xiberoko Botingoak turismoa bultzatzeko erabakia hartu zuen 1960. urteen amaieran. Orduz geroztik, basoetako eta mendí-bizkarretako ehizalekuak enkantean jartzen ditu hiru urtero, alokairuan ezartze horretatik eskuratzen duen dirua artzaintza lanaren errazteko eta bermatzeko baliatzen duelarik. Aitzakia berarekin ere, Iratiko etxolen aisialdigunea

erakiaraztea erabaki zuen, 1970. hamarkada hasieran Xiberoko Botingoak. Egitasmo honek zalaparta ugari piztu zuen, ekintza gogorrek ere egon zirelarik. Azken batean, haatik, egin zen eta Bagargiak izeneko gunean jarrita daude orduz geroztik berrogei bat etxola. Egari zor zaio aitortzea etxola hauetara atsedean eta aisialdi hartzera datozen lagun ugari Hego Euskal Herrikoak direla. Hortaz, euskara barra-barra entzun daiteke sarritan Bagargietako lepo aldean... Zuberoako hainbat herritako plazetan baino nabarmen gehiago!

Ibilaldiak


1- Bagargietako lepotik Orhiraino, ibilbide klasiko eta ezohikotik

Iratiko oihanaren harira bueltatzeko, Bagargietatik abiatzea da aukera hobereenetatik bat gure herriko baso eder honen konpainian bide apur bat egiteko. Oihanaren beraren barrena ez gaituzte hainbestearino eramanen aipatuko ditudan ibilbide hauek, baina Irati misterioitsu eta liluragarria bidelagun hurbil izango dugu. Ibilbideetatik bata oso klasikoa da, Bagargietako etxoletatik Orhi mendí dotorera eramanen gaituelarik, zehiharkaldian. Bestea, ordea, ez da hainbestearino ezagutua eta zehiharkaldi hau egiteko baliatua, honek Bagargietatik Zigigolatzeko artzain-txabolara eta Arthanolatzegaina zein Harsüdürra mendí gailurretara joanaraziko gaituelarik, itzulian.

Klasikoenetik hasteko, Bagargietako harrera bülegotik abiatuz eta



■ **Iratisoroko parajeak.**
Argazkia: José Luis Solana "Solasaga"



MAPA NONDIK

hegoalderantz etxolen artean ibiltzen hasita, pagoen gerizatik irtengo gara laster batean, mendi hegi hertsia batera heltzeko. Gorenean 1445 metroko altuera duen mendizerra honi 'Organbidexkako hegia' deitzen zaio. Eguraldi-estazio txiki bat igaro eta gero, hego-mendebalderako norabidean jarraituko diogu bizkarraren hariari, Mehatzeko lepotik igarota, Pelüsagaña gailurrera (1594 m) jotzeko gisan. Sensibileko mendatera (1547 m) ia ordoki lauean joango gara aurrera. Sensibiletik Odeizügaña tontorrera (1613 m) igotzeko, haatik, aldapatxo bat garaitu beharko dugu. Honaino heldu aurretik hala bazen ere jada, gailur belartsu xume honetatik daukagun bista ikaragarri ederra eta zabala da. Luzeegia litzateke denak aipatzea, baina ezagutuko ditugun mendien artean daude, besteak beste: Ahünamendi, Hiru Erregeak, Petretxema, Axerito, Lakhura, Kartxela, Otsogorrigaña... eta, jakina, hain hurbila dirudien Orhi erregea.

Hurbil dirudiela diot... baina oraindik bada bide asko egiterik bertaratzeko

eta Odeizügaña hegi honetatik bi aukera daude Orhira bidean aurreratzeko. Bata da ibilbide klasikoari eustea, Odixarre, Millagarate eta Thartako hegi eta lepotik aitzineratuz. Leku zoragarriak dira hauek, ezkerreko ipar-ekialdeko maldaren beheara Odeizüküa deitutako basoa eta larrea ditugularik. Gure arbasoek ez zuten izen hori nola nahikoan asmatu, zeren eta, haizeak bata-bestearekin lehian egotearekin hodeiak edo lainoak behintzat metatzen baitira sakan honetan. Eskuinaldean, aldiz, Ibarrodoko naba daukagu, Bizkarze, Organbidea eta Ibarrodoko artzaintza larreak eta artzain txabolak ditugularik, lerro-lerro jarrita. Artzainola hauetatik bakoitzak bere artaldearen ibilbidea badu, Zuberoan «buitla» izena ematen diogu. Gertatzen da bai, batzutan, artaldeak nahasi daitezen, baina ez sarritan. Izan ere, ardiek badakite zein den euren buitla eta zein artalde auzoarena...

■ **Organbidexkako lepoa.**
Argazkia: José Luis Solana "Solasaga"

Iratiko basotik hurbiltzeko, goazen Bizkarzera!

Bagargietatik Orhirako ibilbide klasiko honek Iratiko oihanetik apur bat aldentzen gaitu. Hortarako, bigarren aukera gomenduko nuke, nahiz eta luzeagoa den. Odeizügañeko bizkarretik erabat hegoaldera jo behar da, Leherra Mürkhüillako lepora (1528 m) eraisteko. Hemen, artzain txaboletara daraman bidexka zeiharkatu eta berehala, Hurhargietako hegiaren gora Bizkarze gailur ederrera (1656 m) igoko gara, goxo-goxo. Balio du zinez, bista miresgarriaz gain, Iratiko oihana hortxe baitugu hegoaldeko altzoan. Iratiren zati hau Baltazarra eta Malgorrakoa da. Bizkarze gailuraren mendebaldera, Hurhargietako hegiaren behealdean kokatua den artzaintza larreak Üthürxare du izena. «Xare», «xara» edo «xaro» dira oihana erraiteko euskaraz hainbat eta hainbat dauden izenetatik batzuk. Beste asko daude, oihan handiagoak edo txikiagoak, argiago edo trinkagoak bereizten dituenak. Izen horien artean aipa ditzaket: «Olló» edo «Ollar», «Holli», «Berro», besteak beste...

Bizkarze tontorretik erabat ekialdera behera egingo dugu, hegi harritsu oso polit batetik. Politia bai, ez balira uso ehizarako eraikin itsusi horiek, gure mendi-bizkarrak aberatsen jostaleku bilakaraztearen lekuko. Egun batez, agian, ez dira egongo. Esperantza hori eduki behar da. Artzainak, aldiz, beharrik egongo dira, hala nola Bizkarzetik jaitsi ondoren topatuko dugun lbarrondoko olan partzuer direnak. Zuberoako artzainolak jabetza partikatuak baitira. Sinpleki azaltzeko, artzainola bateko parte etxalde banak bortüan (mendiko larretan) daukan zatia bezala da. Zuberoako baserri gehienetan, bortüaldeko artzainola batean nonbait badago parte bat, «txotxak» neurtzen duena. «Txotxa» da, zein lekutan, 60 edo 80 ardi. Artalde bateko ardien jabetzak bereizteko gisan, tinda bat baliatzen dute artzain-laborariak, bakoitzak berea daukalarik. Hori jakinez gero, lbarrondoko artzainolako larretatik udan igarotzearekin, ea zenbatzen dituzuen zonbat artalde dauden han. Erraza da: tinda bat, jabe bat...

Alüpiñako hegi zorrotz beldurgarria!

lbarrondoko artzain txabolara nabarmen jaitsirik (1306m), berriz ere gorantz egin beharko dugu Thartako lepora igotzeko (1470 m). Hementxe topo egingo dugu berriro Bagargiak eta Orhi arteko ibilbide klasikoarekin, zatirik zailena goaitan dugularik, haatik. Izan ere, Thartako lepotik seko igo beharko dugu Zazpigain gailurrera (1763 m. Gorantz egitea, baina, ezer ez dago behera egiteari alderatuta!... Ezen, Zazpigaineko ekialdeko hegia gero eta zorrotzagoa egiten da jaistearekin batera. Une batean, hain da zorrotza ere, non oin bat Zuberoan eta beste bat Nafarroan edukita aurrera egin behar dela. Hegiaren haritik jaistera ausartzen direnak, haatik, ez dira asko, berrogei bat metro baitira hor benetan beldurgarriak. Pasagune honi «Alüpiñako hegia» deitzen diogu Zuberoan. Honen saihesteko modurik badago, beharrik... Horretarako, Zazpigaineko tontorraren gorenetik berehalaxe, ezkerraldera abiatzen den eta laranja kolorez seinalatua den saihebidetako bat hartu behar da. Honek, korridore baten behera garamatza, xendak sigi-saga egiten duelarik.

Orhi gailurra, Iratiko oihanaren talai

Korridorearen behealdean, zuberotarrek 'Alüpiñako baxa' deitzen diogun amildegitik gora egin beharko dugu, berriz ere hegiaren haria topatzeko. Hemendik aurrera, baina, gandorra askoz ere ibilgarriagoa da. Nafarroa alderat behintzat, Zuberoako aurpegira, aldiz, amildegi gero eta handiagoa baita. Horrela, goxo-goxo igoko gara hegi honen

Argazkia: Mikel Arrizabalaga



■ Bizkarze Orhiko magaletik

gora Orhiko gailur luzea zapatuko dugun arte (2017 m). Gailurra –gutxitarik baina...– Zuberoan kokatuta dago... eta ez gara gutxi harro honengatik!

Zuberoa aldera amildegi eta malda oso aldapsuak daude, Nafarroako alderdira, ordea, mendebaldera behintzat, larre zabalak goxo-goxo jaisten direlarik Iratiko oihanaren ertzeraino. Ezen, Orhiko gailurra da Iratiko basoaren zabalatasunaz eta edertasunaz ohartzeko gunerik egokiegokiena. Dotore ikusten dugu Abodiko mendizerraren iparraldeko maldaren behean luzatzen, amaierarik ez duela iduri. Eguraldi ederra lagun, luzaz egon gaitezke gure pagadi zoragarri honi –eta inguruko beste ikusgai guztiei, jakina!– begira.

Orhikitik jaisteko, hiru aukera

Noizbait jaitsi beharrene, ibilbide beretik buelta gintezke –Alüpiñako hegi zorrotza saihesteko aukerarekin beti– edo norbait gure bila etortzeko paradarik izanez gero, beste bi aukera ditugu aurrera jarraitzeko. Bata, berriz ere, klasikoa, eta bestea ez hain ohizkoa. Nafarroa aldetik Orhi igotzen dutenen ibilbidetik jaitsi gaitezke Üthürzehetako leporaino (1585 m), ezjakin batzuek Puerto Larrau izen xelebreaz deitu dutena... Mendebaldeko maldaren behera, ibilbide ohikoetik goxo-goxo, edo Orhittipiko gailurretik igarota jaisteko aukerarik badugu. Orhittipitik behera eginda, haatik, gogoan hartzekoa da hegia aski aldapsua eta zorrotza dela, tarteka behintzat eta harria ez dela batera sendoa. Orhi gailurretik Üthürzehetako lepora jaisteko ordu bat baino gutxiago beharko dugu. Horrelako zerbait behar da ere, Erroimendiko lepora (1362 m) jaisteko, Axurteriko gailurretik (1829 m) eta Behaztoiko bizkarraren behera. Horrela, Orhiren ipar-ekialdeko gandorraz gozatuko gara. Baina, kontuz, Orhiko gailurraren iparraldeko muturrean behera sartzen



■ Udazkena Irabiako urtegiaren uretik

ikusiko dugun xenda hartu eta berehala, pasarte txiki bat bada arreta handienaz igarotzekoa. Labur da baina, ainitz kasu egin behar da Elixaltolatzeko korridore gainean pasatzearekin. Hemendik aurrera ez da arriskurik batere, nahiz eta malda nahikoa aldapsua den, bereziki Behaztoiko hegian. Gogoan atxiki behar da ere, hegi hau ahal bezainbat iparraldeko amildegiok ertzetik hurbilen jaitsi behar dela, Erroimendira zehatz heltzeko, Arhanolatzeko hegia eskuinean –hegoaldean– utzita.

2- Irati basoaren barrena, ipar-ekialdeko mutur-muturretik

Basoan bertan gehiago ibiltzea gogoko badugu, Zihigolatze, Arthanolatzegaña, Harsüdürra itzulia egitea da aukerarik egokiena. Bagargietako etxolen harreragünetik abiatuta beti ere, honen atzeko aldean tinda horiz seinalua den 'Zihigolatze' izeneko ibilbidea aukeratuko dugu, lehengo batean behintzat. Lehen bide sarda batean, ezkerralderat joko dugu, beti ere 'Zihigolatze' ibilbidea jarraituz eta 'Bagargiak' deitutakoa eskuinalderat joaten utzita. Haatik, denbora laburragoko ibilbidea –ordu baten ingurukoa– egin gura dutenek 'Bagargiak' xenda seinalatuari eutsi diezaioke. Ezkerraldera, beraz, aurrera joango direnak hiru aukera izango dituzte oraino. Beste bide sarda batera heldurik, eskuinalderat 'Iraitzabaleta' ibilbidea aukeratuko dutenek, ordu bat eta erdi edo bi orduren buru Bagargietako abiagunera bueltatzeko parada izango dute.

'Bagargiak' eta 'Iraitzabaleta' ibilbideetan egonda, Iratiko oihanaren ipar-ekialdeko mutur-muturrean, pago guztiz ederren pean ibiltzeko gozamina izango dute. Oihanaren lilura bete-betean gozatzeko egundoko aukera eskaintzen dute bi ibilbide hauek. Txango luzeagoa



latuz. Argazkia: José Luis Solana "Solasa"ga"

egin nahi izango dutenek eta basoaren barrena gogo-bihotzak lasaitasunez betetzeaz gainerat, oihana goialdetik ikusi gura dutenek, 'Zihigolatze' ibilbidea jarraituko dute. Iraitzabalelako erreka iragan eta gero, beste malda baten gora sigi-saga geramatza xendak. Aski laster, Zihigolatzeko artzain-txabolara daraman bide harrizatuarekin egingo dugu topo eta hemen ere aukera bi izango ditugu. 'Zihigolatze' ibilbide seinatutuan jarraituz gero, bide harriztatutik eta Iratiko oihanaren ertz-ertzetik ibilita eta Iraitzabalelako lepotik igarota, Bagargietara bueltatuko gara, itzuli osoak, hiru ordu eta erdi - lau ordu tartean behartuko digularik.

Zihigolatzeko artzainolara deraman bidera helturik, baina, oso gomendagarria da ibilbide seinatua uztea eta ezkeraldera jotzea, bide harriztatuan beti ere. Honek, Zihigolatzeko artzain-txabola berrira eramanez gaitu lehenik eta artzainola zaharrera apur bat geroxeago. Zuberoako usadio zaharrez, txabola zaharra giltzatu gabe uzten dute artzain partzuerrek, horrela, mendizaleei aterbea eskaintzen dielarik. Gogoan eduki behar da, haatik, norbaiten -kasu honetan jabe bat baino gehiagoren- etxean bezala garela eta, beraz, lekua errespetatu eta txukun utzi behar dela. Zuberoako artzaintza lege zaharrak nahi du ere berotzeko edo janaria egiteko egurrik baliatzen bada, erretakoaren beste horrenbestekoa moztu eta ordainez utzi behar dela...

Zihigolatzetik Harsüdurreraino

Zihigolatzeko txabola zaharraren alboalbotik, iparrerako malda belartsuaren gora igo beharko zaigu, xenda ez delarik beti ondo ageri. Gorantz egiten ari garelarik, bizkarrean daukagu Iratiko oihana eta honen goiko aldean Organbidexkatik Bizkarzerainoko mendilerroa. Hego-mendebaldean, aldiz, ezagutuko dugu

-nola ez? Okabeko gailurra (1456 m) eta gure arbasoen azken atsedenerako leku ospetsua den Ilharrietako lautada. Iratiko basoaren eta Okabeko leku sakratuaren magia gure urratsen lagungarri direla, Bürkidoiko lepora (1392 m) helduko gara. Hau da Baxenabarre eta Zuberoaren arteko muga, Harsüdurrako mendilerroari dagokionez. Leku honetan, mendate orotan bezala azken finean, haizea laket dago. Haizeak indartsu ufatzen duten lekuak «aizeterrri» direla erraiten dugu Zuberoan. Haizea laket dagoen lekuan urkia zuhaitza ere egongo da, sarritan. Urkia, «bürkia» da zubereraz, eta hara zergatik Bürkidoiko lepoa izendatu zuten, orain dela aspaldi, leku hau. Aspaldi bai... zeren eta, urkirik batere ez baitugu ikusiko lepoan bertan behintzat.

Baxenabarrari bizkar emanda, erabat ekialdera joko dugu, aski laster malda nahiko aldapatsu baten gora igo beharko dugularik. Honek eramanen gaitu Harsüdurrako mendilerroaren gailurra den Arthanolatzegañera (1530 m). Tontor oso ederra da eta mereziko luke bere auzoko gailurra bezain ezagutua izatea. Arthanolatzegañeko tontorra saihestu nahi bada, aukerarik bada. Bürkidoiko lepotik bertatik, Arthanolatzegañaren iparreko maldatik kurrizten da xenda oso polit eta ezezagun bat. Honek, Lepottipira eramanen gaitu, hain zuzen, Arthanolatzegañeko

tontorretik ipar-ekialdeko maldaren beheara jaistearrekin iritsiko garen toki berdinerara. Hortxe topatuko ditugu, aldiz, GR 10 xenda eta bere tinda zuri eta gorri ezagunak. Hauei jarraitu aitzin, oso komeni da Harsüdurraren gailurrari agur egitera joatea, Lepottipitik bost minutu ere ez baita behar.

Orain arte behin eta berriro aipatu dut Harsüdürri izen hori eta baten batek beharbada ez du ulertu zein mendiz mintzo nintzen. Harsüdürri da, frantsesezko 'Pic des Escaliers' izendatze kaskarretik euskaratze gaxkarragoa eginda, 'Eskalerak' izendatu ohi dena. Ohitura txarra, zinez, Zuberoan Harsüdürri -«harri sudurra», alegia- besterik ez baitugu ezagutzen. Harsüdürretik, beraz, GR 10 xendara jaitsiko gara eta erabat hegoaldera jarraituko diogu, beheerantz. Uso ehizarako eraikin tamalgarriei arreta gehiegirik jarri gabe eta Bargargietako etxolak begi bistan ditugula, Iraitzabalelako lepora (1248 m) iritsiko gara. Hementxe topatuko dugu berriro Zihigolatzeko artzain-txabolara daraman bide harriztatua eta orain bai segituko diogula, beti ere hegoalderantz. Aski laster, Bagargiak eta Ahüzki arteko bidearekin egingo dugu topo eta eskuinalderat joko dugu, bospasei ehun metroren buruan Bargargietako harrera gunera helduko garen arte. □

Web guneak

www.irati.org
www.valleedesoule.com
www.soule-xiberoa.fr
<http://csps.monsite.orange.fr/>
www.chalets-paysbasque.com
www.tourisme64.com
www.orbaizeta.com
www.aezkoa.net
www.casasdeirati.com
www.ochagavia.com
www.pirineonavarro.com
www.valledeslazar.com
www.turismodenavarra.es
www.turismo.navarra.es
http://eu.wikipedia.org/wiki/Iratiko_oihana
<http://sitna.cfnavarra.es>

Bibliografia

- "Iratiko", *Euskal Herria aldizkaria*, 42 zenbakia, 2009.
- Laquet-Fiau, H.: *Iratiko oihana neure laguna*, Artola ediciones, 2002.
- Feliu, J.M.: *Iratiko, Arbaila y alrededores*, Mendiak, Etor Ostoa, 2007.
- Otermin, L.: *Iratiko*. Argazkiak, Irudi, 2008.
- Angulo, M.: *Rutas y paseos por Iparralde*, Sua edizioak, 1988.
- Angulo, M.: *Iratiko: a pie, en esquí, en BTT*, Sua, 1989.
- Yáñez, S.: *Rincones singulares de Iparralde*, Sua edizioak, 1996.
- Pérez, F.: *Iratiko oihana*, A.D.E.V.E., 2005.
- Angulo, M.: *Euskal Herriko mendiak. 400 ibilbide zuzen probintzietan zehar*, Elkar, 1995.
- Ganuza, R. eta Sanz de Acedo, A.: *El Pirineo navarro. 50 itinerarios*, El Senderista, 2001.
- Batzuen artean: *Pirineo oriental*, E.G.N. (Navarra), 2009.
- *36 ebilaldi Euskal Herrian - Xiberoko xendak*, 'Xiberoa' Herri Alkargoa, 2006.



Udazken koloreak Iratiko oihanean

Argazkia: José Luis Solana "Solasa"ga"

Kartografia

- **1346 ET- Forêt d'Iraty - Pic d'Orhy**, 1:25000 eskala, Institut Geographique National, 2002.
- **Pays Basque est**, 1:50000 eskala, Rando éditions, 1992.
- Angulo, M. eta Feliu, J.M.: *Iratiko. Ori, Otsagabia*, 1:25000 - 1:50000 eskalak, Cuadernos pirenaicos, Sua Edizioak, 2007.
- Angulo, M. eta Feliu, J.M.: *Iratiko. Orhy, Otsagabia*, 1:25000 - 1:50000 eskalak, Cahiers Pyrénées, Sua Edizioak, 2007.
- **Valles de Irati y Aezkoa**, 1:25000 eskala, Alpina mapa y guía excursionista, 2007.
- **Mapa Irati 117-I**, 1:25000 eskala, Mapa Topográfica Nacional, Centro Nacional de Información Geográfica, 2010.